

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Kantauriko Urkidetzaren Kontu Orokorra

**Cuenta General del Consorcio de Aguas
Kantauriko Urkidetza**

2017





AURKIBIDEA

LABURTZAPENAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	9
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	9
II.2 Urteko Kontuei buruzko iritzia	9
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	10
III.1 Alderdi orokorrak	10
III.2 Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea.....	11
III.3 Langileria-gastuak.....	12
III.4 Tasak eta bestelako sarrerak	13
IV. URTEKO KONTUAK.....	14
IV.1 Aurrekontuaren kontuak	14
IV.2 Ondare kontuak	15
ERANSKINAK	17
A.1 Araudi aplikagarria	17
A.2 Aurrekontua eta aurrekontuko aldaketak	18
A.3 Ibilgetua, inbertsio errealak eta ondarea	18
A.4 Zordunak eta hartzekodunak.....	19
A.5 Tasak eta bestelako sarrerak	19
A.6 Kapital diru-laguntzek eragindako sarrerak	20
A.7 Langileria-gastuak.....	20
A.8 Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	21
A.9 Aurrekontuaren eta ondare emaitzaren arteko berdinkatzea	21
A.10 Ondasun eta zerbitzuen kontratazioa	22
ALEGAZIOAK.....	23



ÍNDICE

ABREVIATURAS	27
I. INTRODUCCIÓN	29
II. OPINIÓN.....	31
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	31
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales.....	31
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	32
III.1 Aspectos generales.....	32
III.2 Contratación de bienes y servicios	33
III.3 Gastos de personal	34
III.4 Tasas y otros ingresos	35
IV. CUENTAS ANUALES.....	36
IV.1 Cuentas presupuestarias.....	36
IV.2 Cuentas patrimoniales	37
ANEXOS	39
A.1 Normativa aplicable	39
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias	40
A.3 Inmovilizado, inversiones reales y patrimonio.....	40
A.4 Deudores y acreedores.....	41
A.5 Tasas y otros ingresos	41
A.6 Ingresos por subvenciones de capital	42
A.7 Gastos de personal	42
A.8 Gastos en bienes corrientes y servicios.....	43
A.9 Conciliación resultado presupuestario-patrimonial	43
A.10 Análisis de contratación de bienes y servicios.....	44
ALEGACIONES	45



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

AFA	Arabako Foru Aldundia.
ALHAO	Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
EUA	Edateko Uren Araztegia.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
SPKLTB	Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
UGPG	Ur gordina ponpatzeko gunea.
Urkidetza	Kantauriko Urkidetza.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2018rako Lanerako Programan erabakitakoari jarraikiz, Kantauriko Urkidetzaren 2017ko ekitaldiaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa mamitu du.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: Honako atal hauetan: aurrekontua, langileria, obren kontratazioa, hornidura eta zerbitzuak eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- Kontularitzakoak: Kontuak aplikagarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Lanean ez da jaso gastuaren efizientziari eta efikaziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren hutsak «Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

Amurrio, Artziniega, Aiara, Okondo, Laudio eta Aiarako Kuadrillako Udalek, Arabako Foru Aldundiarekin batera, 1998an eta 1999an onetsi zuten “Kantauriko Urkidetza” izeneko Ur Partzuergoa eratzea. Hori arautzeko Estatutuak 1998ko ekainaren 22ko ALHAOn argitaratu ziren.

1999ko otsailaren 24an, ALHAOn argitaratu ziren AFAk “Kantauriko Urkidetza” Ur Partzuergoarekin bat egiteko proposamenaren hasierako onespina eta Partzuergoaren Estatutuak eta AFAk Partzuergoari transferitzeko ondasun eta eskubideen zerrenda balioetsia. Ondoren, 1999ko apirilaren 30eko ALHAOn, AFAk “Kantauriko Urkidetza” Ur Partzuergoarekin bat egiteko erabakiaren behin betiko onespina argitaratu zen.

2017ko urriaren 24an, Partzuergoko Batzar Nagusiak Estatutuak aldatzea erabaki zuen. Hala, ezarri zuten Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 120. eta 124. artikuluetan ezarritakoa aplikatuta, partzuergoa Laudioko Udalera atxikita geratzen zela. Gaur egun, akordio hori indargabetuta dago (ikusi III.1 atala).

Estatutuek ezartzen dute Urkidetzaren xedeak direla lehen mailako sareetan saneamenduaren eta ur-horniduraren azpiegitura ezarri eta ustiatzea eta dagozkion zerbitzuak ematea; hori guztia, baldintza egokietan eta indarreko araudiarekin bat etorriz. Era berean, Urkidetzak, hala adosten duenean, bere xedeak uraren zikloaren beste fase batzuetara zabaldu ahalko ditu, dagozkion erakundeekin adostuta eta horien alde aurreko hitzarmenarekin. Halaber, Urkidetzaren Estatutuek Aiarako Kuadrillako kontzejuan Urkidetzarekin bat egitea aurreikusten dute. 2017ko abenduaren 31n, egoera honako hau zen, Urkidetza osatzen zuten toki erakundeei eta garatu beharreko eskumen eta eginkizunei zegokienez:

- Partzuergoko udalerrri eta kontzeju guztientzat (Laudio eta Artziniegako Udalak eta Arespalditza, Erretes Lanteno, Artomaña eta Lekamañako kontzejuak): uraren goi-hornidura (adukzioa) eta uraren kalitatea (Kontrol eta Zaintza Unitatea).
- Uraren hiri-ziklo osoa kudeatzearen alde egin duten udalerrri eta kontzejuetarako (Aiara eta Amurrioko Udalak eta Agiñaga, Añes, Opellora, Erbi, Etxegoien, Izoria, Madaria,



Maroño, Lexartzu, Luiando, Luxo, Olabazar, Ozeka, Kexaa, Soxo, Zuhatza eta Larrinbeko kontzejuak): aurreko puntuan jasotakoez gain, banaketa, behe-saneamendua eta herritarren arreta.

Halaber, Urkideztan ez badaude ere, eskualdeko beste kontzeju batzuei ere ematen zaie hornidura: Lanteno, Salmantón, Murga, Saratxo eta Lezama.

Estatutuetan aurreikusitako goi-saneamendu eta -arazketako zerbitzuak ez dira ematen ari, Goi-Nerbioiko Saneamendu Plana exekutatu ez delako. Abenduaren 30eko 42/1994 Legeak (zerga-, administrazio- eta gizarte-arloko neurriei buruzkoa) interes orokorrekoztat jo zituen "Goi-Nerbioiko saneamendu eta arazketa" lanak. Gerora, jarduketa hori Plan Hidrologiko Nazionala onartzen duen uztailaren 5eko 10/2001 Legearen II. eranskinean (Inbertsioen zerrenda) sartu zen; horrenbestez, Estatuaren interes orokorreko jarduketa bat da, Lege bereko 36.5 artikuluari jarraikiz. 2018ko apiril eta maiatzean, Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioak alde aurreko informazioko iragarkiak argitaratu ditu EBAOn, Goi-Nerbioiko Saneamendu Planari lotutako azpiegituren obra eta zerbitzuen kontratuetakoko eskaintzak jasotzerako orduan epeak murrizteko xedez.

2019ko ekainaren 11n, Uraren Zuzendaritza Nagusiak egindako lizitazioaren iragarkia argitaratu da BOEn. Horren xedea da Nerbioi ibaiaren goi-arroaren saneamendurako kolektoreen proiektuaren obrak kontratatzea (eranskina eta 2. eranskina), bi lotetan, Markijana eta Basaurbe sistemei dagozkienak. Obrak gauzatzeko epea 38 hilabete da.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Behe-sareen mantentze-lanak kontrolatu eta zuzentzeko eginkizunetarako aholkularitza teknikoko zerbitzuaren prestazioa (5. espedientea), guztira 144.306 euroren zenbatekoan esleitutakoa, bi urterako (2017ko azaroko epemugarekin), esleipendunak ematen du oraindik, txosten honen datan, dagokion kontratazio-espedientea izapidetu gabe (ikus A.10 eranskina).

Epaitegi honen iritzira, aurreko salbuespena kenduta, Kantauriko Urkidetzak zuzentasunez bete du bere jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duen lege-araudia 2017ko ekitaldian.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. 2017 ekitaldiko laugarren hiruhilekoko banaketa- eta saneamendu-zerbitzuen tasa bidezko diru-sarrerak (202.474 euroren zenbatekoan) 2018 ekitaldian erregistratu ziren; hortaz, Urkidetzaren Ondare Garbia 2017ko abenduaren 31ko datan zenbateko horretan areagotu behar da (ikusi A.5 eranskina).

Epaitegi honen iritiz, aurreko salbuespena kenduta, Kantauriko Urkidetzaren 2017 ekitaldiko kontuek, alderdi garrantzitsu guztietan, 2017ko aurrekontu-ekitaldiko ekonomia-jarduera, ondarearen irudi fidela eta 2017ko abenduaren 31ko finantza-egoera islatzen dute, baita data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta kutxa-fluxuen emaitzak ere; hori guztia, aplikatzekoa den finantza-informazioaren inguruko araudi-esparruarekin, eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat etorritz.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioen betetzeari nabarmen eragiten ez dioten hutsak nahiz kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak jasotzen dira.

III.1 ALDERDI OROKORRAK

2017ko urriaren 24an, Partzuergoko Batzar Nagusiak Estatutuak aldatzea erabaki zuen. Hala, ezarri zuten Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 120. eta 124. artikuluetan ezarritakoa aplikatuta, Urkidetza Laudioko Udalera atxikita geratzen zela. Atxikipen-akordio horri dagokionez, alderdi hauek nabarmendu nahi ditugu:

- 2017ko abenduaren 12an, Laudioko Udaleko alkateak berraztertze errekurtso bat jarri zuen.
- 2018ko maiatzaren 31n, Urkideztako Batzar Nagusiak hau erabaki zuen:
 - Berraztertze errekurtso hori ezestea, ikuspegi juridiko administratibo substantzian oinarrituta.
 - 2017ko urrian lortutako akordioaren eraginkortasuna indargabetzea, indargabetze hori Batzar Nagusiak modu arrazoituan ukatzeko aukerarekin, edo Partzuergoko erakunde guztiek Estatutuak aldatzeko erabakia berresteko unean baliogabe geratuta.
 - Errekurtsoa aintzat hartzea lan eta eztabaida berria irekitzeko eskaerari dagokionean, nahikoa adostutako proposamen batera iristeko helburuarekin, Batzar Nagusiak onestea ahalbidetzeko modukoa, eta Partzuergoko erakunde bakoitzak berrespen indibiduala egiteko ondoko barne-prozeduran aurrera atera ahal izateko modukoa.
- 2018ko irailaren 24an, Laudioko Osoko Bilkurak erabaki zuen 2018ko maiatzaren 31ko Batzar Nagusiaren erabakiaren aurkako berraztertze errekurtsoa jartzea; akordio horren bidez alkateak jarritako berraztertze errekurtsoa ezetsi zen.

Ondorioz, Estatutuen aldaketa, atxikipenaren administrazioari dagokionez, etenda dago, Laudioko Udalarekin duen auzia ebatzi eta Partzuergoko erakunde guztiek Batzarraren proposamena berretsi bitartean.

III.2 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEA

Kontratazio-espedienteak

Hautatutako ondasun eta zerbitzuen kontratazio-espedienteen analisitik (ikus A.10 eranskina), honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Aztertutako hiru zerbitzu-espedienteetan (4, 5 eta 6 espedienteak), 618.080 euroren zenbatekoan esleitutakoak, ez da kontratuaren beharrari buruzko justifikazio-memoria egin.
- Obra-espediente batean (1 zenbakiko espediente), 656.835 euroren zenbatekoan esleitutakoa, proiektuak ez du derrigorrezko ikuskapena jaso.
- Lau espedienteren administrazio-baldintzen pleguek (2, 3, 5 eta 6 espedienteak), 632.717 euroan esleitutakoak, esleipen-irizpide gisa jasotzen dute hobekuntza teknikoak gehitzea, zein elementuren gainean zehaztu gabe eta horiek aurkezpena baimentzeko baldintzak adierazi gabe.
- Urkidetzak hainbat formula aplikatzen ditu “prezioa” irizpidea baloratzeko, horien erabilera justifikatu gabe.

Bestalde, guztira 721.912 euroan esleitutako lau espedientetan erabilitako formulak lizitazioaren prezioa berdintzen duten eskaintzei (3, 4 eta 6 espedienteak) edo ia berdindu egiten dituztenei (5 zenbakiko espediente) ematen dizkie puntuak. Gauzak horrela, formula horrek ez du ahalbidetzen prezio-irizpideari esleitutako puntu guztiak banatzea.

- Aztertutako hiru obra-espedienteetan (1, 2 eta 3 espedienteak), guztira 1,1 milioi euroan esleitutakoak, kontratazio-organoak ez ditu esleipendunen lan-programak onetsi.
- Aztertutako bi espedientetan (4 eta 5 espedienteak), guztira 540.638 euroan esleitutakoak, kontratuaren formalizazioari ez zaio dagokion publizitatea eman aldizkari ofizialetan (EBAOn, BOEn eta ALHAOn 4. espedientearen kasuan eta ALHAOn 5. espedientearen kasuan).
- Zerbitzu-espediente bat (5 zenbakiko espediente) 144.306 euroan esleitu zen bi urterako, eta epealdi horretarako formalizatu zen. Alabaina, lizitazioak kontratu-urte bat eta luzapen-urte bat aurreikusten zuen.

Administrazio-kontratazioko espedienterik gabeko gastua

Berrikusitako administrazio-kontratazioko espedienterik gabeko gastuetatik honako alderdi hauek azpimarratzen ditugu:

- Obra-espedienteari dagokionez (2 zenbakiko espediente), enpresa berarekin sinatu dira guztira 53.383 euroren balioa duten hiru obra-kontratu txiki, alternatiba eta aurre-proiektuak idaztearekin, txosten teknikoak egitearekin eta obraren zuzendaritzarekin zerikusia dutenak. Kontratu horiek eskaintzak aurkezteko eskaeradun prozedura negoziatuaren xede izan beharko ziratekeen, lehiaren printzipioa aplikatu ahal izateko.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Kontagailuen hornidura- eta instalazio-zerbitzuak eta errektiboen hornidura-zerbitzua, hurrenez hurren urteko 43.848 eta 29.881 euroren balioko zenbatekoen truke 2017an espedienterik gabe kontratatu zirenak, Urkidetzak behin eta berriz egiten dituen gastuak dira, eta, beraz, dagozkien kontratazio-espedienteen bitartez egin beharko lirатеke gastu horiek.
- Urkidetzak 2017ko uztailaren 15ean bi enpresarekin idazketa-proiektuak egiteko lau kontratu txiki sinatzea onetsi zuen, 46.614 euroan. Aintzat hartuta zerbitzu horien prestazioa erakundearen ohiko kontratazio errepikakorraren barruan dagoela, dagozkien kontratazio-prozesuak egitea gomendatzen da, zerbitzu horien kontratazioan lehia sustatzeko.

III.3 LANGILERIA-GASTUAK

Atal honetan alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Partzuergoko aurrekontu-plantillak hutsik dagoen eta LZn jasotzen ez den idazkari eta kontu-hartzaile plaza baten % 20 aurreikusten du.

Gaur egun, gerenteak egiten ditu idazkari eta kontu-hartzailearen lanak, 2002ko martxoaren 26ko Batzar Nagusiaren erabaki bat oinarritzat hartuta, zeinaren bidez onetsi baitzen gerenteak egitea kontu-hartzailearen arloko lanak. Alabaina, esleitutako zereginak bateraezinak dira idazkari eta kontu hartzaile eta gerente lanpostuen artean. Horren harira, jarraian datozen zereginak, besteak beste, ez ditu legez gaitutako pertsona batek gauzatzen: kontratazio-espedienteetako baldintza-pleguen idazkariaren txostena eta gastua baimentzeko kontu-hartzailearen txostena, Kontratazio Mahaiaren ordezkari eta aurrekontuari, aldaketei eta kontu-emateari buruzko txostena.

Atxikitzea onartu eta gero, eta legearen aurreikuspeni jarraikiz, gomendatzen da plaza hori atxikitzen den erakundearekiko lankidetzaren postu gisa gehitzea LZn eta aurrekontu-plantillan, eta ordura arte mota horretako lanpostuak betetzeko legez aurreikusitako eraren bat aplikatzea, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak (Estatutako gaikuntza duten toki-administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa ezartzen duena) ezarritakoaren arabera.

- LZn funtzionario gisa kalifikatutako langile kualifikatuen egiturazko beharrianak (administrari plaza bat hutsik dago) SPKLTBren zerbitzuetako administrazio-kontratu baten bitartez estaltzen ari dira.
- Aparteko orduak era jarraituan onesteari dagokionez, aintzat hartuta osagarri espezifikoak, besteak beste, egin beharreko lanaren dedikazio eta konplexutasun berezia baloratzen duela, gomendagarria litzateke lanpostuaren balorazio bat egitea, lanpostuari esleitutako ordainsariei dedikazio hori kontuan har dezaten.



III.4 TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

- Urkidetzak hitzarmen bat sinatu zuen 2008an AFAko Agentzia Exekutiboarekin premiamendu-bidezko diru-bilketa egiteko, eta ez dio jakinarazi zein zordun dauden egoera horretan. 2017 ekitaldia ixtean 40.515 eurorena da diru-bilketa mota horri dagokion zenbatekoa.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. URTEKO KONTUAK

IV.1 AURREKONTUAREN KONTUAK

A. 2017KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA Euroak milakotan

DIRU-SARRERAK	Eransk.	Aurrekontua			Eskubide kitatuak	Eskubide Kobrantz.	Ordain. Kobr.
		Hasierak.	Aldak.	Behin-betikoak			
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A5	2.220	-	2.220	2.253	1.977	276
5.- Ondare sarrerak.....		13	-	13	4	4	-
7.- Kapital transferentziak.....	A6	320	42	362	368	48	320
8.- Finantza aktiboen bariazioa		-	1.041	1.041	-	-	-
SARRERAK GUZTIRA		2.553	1.083	3.636	2.625	2.029	596

GASTUAK	Eransk.	Aurrekontua			Obligazio zorpetuak	Ordaink.	Ordaindu gabe
		Hasierak.	Aldak.	Behin-bet.			
1.- Langileria gastuak.....	A7	169	-	169	146	143	3
2.- Ondasun arrunten eta zerb. gastuak..	A8	1.322	5	1.327	1.178	1.004	174
2.- Transferentzia arruntak.....		1	-	1	-	-	-
6.- Inbertsio errealak	A3	1.061	1.046	2.107	1.258	1.039	219
7.- Kapital transferentziak.....		-	32	32	32	-	32
GASTUAK GUZTIRA		2.553	1.083	3.636	2.614	2.186	428

B. EKITALDI ITXIEN HONDAKINEN LIKIDAZIOA, 2017 Euroak milakotan

	Hasierako zorra	Baliog.	Ordaink.	Azken zorra
Zordunak	635	-	(246)	389
Hartzekodunak	204	-	(204)	-

C. AURREKONTUAREN EMAITZA 2017 Euroak milakotan

Eskubide kitatuak	2.625
Obligazio aitortuak	(2.614)
AURREKONTU ARRUNT GORDINAREN EMAITZA	11
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	290
2016ko finantza soberakinak	340
AURREKONTU ARRUNT DOITUAREN EMAITZA	641
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA	-
2017KO EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA	641

D. DIRUZAINZA GELDIKINA 2017.12.31N Euroak milakotan

Izakinak guztira diruzaintzan	569
Aurrekontuko kobratzeko dauden eskubideak	985
Aurrekontuz kanpoko eragiketetatik kobratzeko dauden eskubideak	3.541
Aurrekontutik ordaintzeke dauden obligazioak	(428)
Aurrekontuz kanpoko ordaintzeko dauden obligazioak.....	(89)
DIRUZAINZA GELDIKIN GORDINA	4.578
Nekez kobragarri edo kobraezin diren zor-eskubideak	(33)
DIRUZAINZA-GELDIKIN LIKIDOA	4.545
FINANTZAKETA ATXIKIA DUTEN GASTUETARAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA	-
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA	4.545



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.2 ONDARE KONTUAK

A. Balantzeak 2017 eta 2016ko abenduaren 31n				Euroak milakotan			
AKTIBOA	Eransk.	2017	2016	PASIBOA	Eransk.	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA		31.566	29.023	ONDARE GARBIA		36.111	33.241
Ibilgetu ez-materiala	A3	840	943	Ondarea	A3	34.395	32.245
Ibilgetu materiala	A3	30.726	28.080	Ekitaldi itxien emaitza		54	(172)
				Ekitaldiaren emaitza.....		102	226
				Emaitzetara egozteko diru-lag.	A6	1.560	942
AKTIBO ARRUNTA		5.062	4.814	PASIBO ARRUNTA		517	596
Kudeaketa eragiketeng. zordunak	A4	952	626	Epe laburreko zorrak.....	A4	219	64
Kobratzeko beste kontu batzuk	A4	28	35	Kudeaketa eragiket. hartzekodunak..	A4	209	481
Administrazio publiko hartzekodunak	A4	263	68	Ordaintzeko bst. kontu batz.	A4	79	42
Epe laburreko finantza-inbertsioak....	A4	3.250	3.250	Administrazio publiko hartzekodunak	A4	10	9
Eskud. eta bst. akt. lik. baliok.....		569	835				
AKTIBOA, GUZTIRA		36.628	33.837	ONDARE GARB. ETA PASIB., GUZTIRA		36.628	33.837

B. 2017 eta 2016ko ekit. ondare eta ekonomiako emaitzaren kontuak		Euroak milakotan	
	Eransk.	2017	2016
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	A6	90	52
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa.....		846	925
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.		1.403	879
Langileria-gastuak		(153)	(158)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak		(32)	-
Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak.....		(1.184)	(1.079)
Ibilgetua amortizatzea	A3	(851)	(398)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA		119	221
Arruntak ez diren beste kontu-sail batz.		1	1
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK		120	222
Sarrera finantzarioak		6	12
Gastu finantzarioak		-	(1)
Finan. akt. eta pasiboen balioaren narriadura, bajak eta besterentzeak		(24)	(7)
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK		(18)	4
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA		102	226





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERANSKINAK

A.1 ARAUDI APLIKAGARRIA

Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak, 2016ko urriaren 2an indarrean sartu zenak, partzuergoen araubide juridikoa arautzen du eta, besteak beste, agintzen du partzuergo bakoitzaren Estatutuak erabakiko dutela zein administrazio publikori atxikiko zaion.

2017ko urriaren 24an Urkidetzaren batzar nagusiak erabaki zuen Estatutuak aldatzea eta 3.3 artikuluan jasotzen da Urkidetza Laudioko Udalari atxikiko zaiola. Erabaki hau etenda dago, harik eta ez den Laudioko Udalak jarritako errekurtsioa ebazten eta Urkidetzan bildutako enteek berresten ez duten bitartean (ikus III.1 atala, Alderdi Orokorrak).

Hona hemen Urkidetzari aplikagarriak zaizkion arau nagusiak:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarri arauak arautzen dituen eta 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen Gaietan indarreko xedapenen testu bategina onesten duena.
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 41/1989 FA, uztailaren 19koa, Toki Ogasunak Arautzen dituen.
- 3/2004 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoa
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.
- 15/2014 Legea, irailaren 16koa, Sektore Publikoa arrazionalizatzeko eta administrazio erreformaren beste neurri batzuei buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2011ko urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 56/2015 Foru Dekretua, Arabako toki erakundearen kontularitzako esparru arautzailea onesten duena.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.2 AURREKONTUA ETA AURREKONTUKO ALDAKETAK

Urkidetzaren 2017ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra hasiera batean Batzar Nagusiak onartu zuen 2016ko azaroaren 20an. Argitara ematen denetik aurrera hamabost lanegun igaro ostean batere erreklamaziorik jaso gabe, behin betiko onartu zen eta 2017ko otsailaren 17ko BLHAOn eman zen argitara.

2017ko ekitaldian aurrekontua aldatzeko hiru espediente onartu dira, hasiera batean onartutako aurrekontua guztira 1,1 milioi euroren zenbatekoan handitu dutenak (hasierako aurrekontuaren % 42,4); aldaketarik esanguratsuena izan da aurreko ekitaldiko kreditu geldikinak txertatzea, Diruzaintza Geldikin bidez finantzatu dena, 1 milioi euroren zenbatekoan.

A.3 IBILGETUA, INBERTSIO ERREALAK ETA ONDAREA

Ibilgetuko kontuek 2017an izan duten mugimendua honakoa izan da:

	Euroak milakotan						
	Saldoa 2017.1.1ean	Aurrekont. altak	Lagapen altak	Doiketa	Eskualdak.	Amortiz. zuzkid.	Saldoa 2017.12.31n
Kostua.....	1.309	67	-	(4)	(63)	-	1.309
Amortizazio metatua	(366)	-	-	-	-	(103)	(469)
IBILGETU UKIEZINA	943	67	-	(4)	(63)	(103)	840
Kostua.....	35.173	1.191	2.149	(9)	78	-	38.582
Amortizazio metatua	(7.212)	-	-	-	-	(748)	(7.960)
Indarrean dagoen materiala.....	119	-	-	-	(15)	-	104
IBILGETU MATERIALA	28.080	1.191	2.149	(9)	63	(748)	30.726
2017KO MUGIMENDUAK GUZTIRA		1.258	2.149	(13)	-	(851)	

Urkidetzaren aurrekontuaren konturako ibilgetuko altak, 1,3 milioi eurorenak, inbertsio errealean aurrekontuko kapituluan jasotzen dira; egikaritutako inbertsio esanguratsuenak izan dira: Bestialdeko Ur gordina ponpatzeko gunearen instalazioak berregokitzeko lanak, 607.096 euroan eta Edateko Uraren Araztegian ikatz aktiboko iragazkiak, 331.332 euroren zenbatekoan.

Urkidetzak lehenengo eta bigarren sareko azpiegiturak jasotzen ditu Urkidetzan bildutako kontzejuek lagata, eta azpiegitura horiei Ibilgetu Materialean ematen zaie alta, kontrapartida "Lagatako Ondarea" pasiboko kontuan izanik. Lagapenean jasotako azpiegituren kontzeptuko 2017ko ekitaldiko altak, 2,1 milioi eurorenak, Ondare kontuko saldoaren igoeran islatzen dira, ekitaldi hasieran 32,2 milioi euro izatetik, 34,3 milioi euro izatera aldatu direnak.

A.4 ZORDUNAK ETA HARTZEKODUNAK

Egoeraren Balantzeko zordunen eta hartzekodunen xehakapena honako hau da:

AURREKONTUKO ERAGIKETAK	Euroak milakotan	
	Zordunak	Hartzekodunak
Aurrekontu arrunta.....	596	428
Aurrekontu itxiak	389	-
Kaudimengabeziatarako zuzkidura	(33)	-
Epe laburreko zorrak	-	219
Kudeaketa eragiketengatik zordunak/hartzekodunak	952	209

AURREKONTUZ KANPOKO ERAGIKETAK	Euroak milakotan	
	Zordunak	Hartzekodunak
BEZagatiko zordunak eta hartzekodunak	27	71
Bestelako txikiago batzuk	1	8
Kobratu/ordaintzeko beste kontu batzuk	28	79
Foru Ogasun zorduna BEZagatik	263	-
Ogasun publikoa, PFEZagatik hartzekodun.....	-	9
Bestelako txikiago batzuk	-	1
Administrazio publiko zordunak/hartzekodunak	263	10
Epe laburreko finantza-inbertsioak	3.250	-
AURREK. KANPOKO ZORDUNAK/HARTZEKODUNAK GUZTIRA	3.541	89

Finantza inbertsioen epe laburreko saldoa, 3,2 milioi eurorena, Urkidetzak bi finantza-etxetan gordailatutako funtsei dagokie, epe laburreko epe-muga dutenak.

A.5 TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen tasa eta bestelako sarrerengatik kitatutako eskubideak, kontzeptuen arabera xehakatuak:

TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK:	Euroak milakotan	
	2017	2016
Prezio publikoak zerbitzu-emateagatik edo jarduerak gauzatzeagatik	846	926
Banaketa zerbitzua emateagatik diru-sarrerak	1.158	752
Estolderia zerbitzua emateagatik diru-sarrerak	245	119
Bestelako sarrera txikiagoak	4	8
GUZTIRA	2.253	1.805

2016ko martxoaren 22ko Batzar Nagusiak onetsi zuen Urkidetzan altan emandako adukzio-, edateko uraren hornidura-, saneamendu- eta arazketa-zerbitzuak emateagatik erabiltzaileei kobratu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala 2016-2019 aldirako, eta 2016ko maiatzaren 25eko ALHAOn argitaratu zen.



Banaketa eta estolderiagatiko diru-sarrerren fakturazioa hiru hilero egiten da. Gauzak horrela, 2017 ekitaldiko aurrekontuak 2016 ekitaldiko laugarren hiruhilekoko urteko kuota bat eta 2017 ekitaldiko lehen hiru hiruhilekoko urteko kuota jasotzen du. 2017 ekitaldiko laugarren hiruhilekoko banaketa- eta saneamendu-zerbitzuengatiko tasen diru-sarrerak (202.474 euro) 2018 ekitaldian daude jasota.

A.6 KAPITAL DIRU-LAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen kapital transferentziek eragindako aurrekontuko sarrerak, kontzeptuen arabera:

TRANSFERENTZIEK ETA DIRU-LAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK	Euroak milakotan	
	2017	2016
AFaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana	320	341
Amurrioko udala: Kudeatzeko gomendiorako hitzarmena.....	42	42
Bestelako txikiago batzuk	6	-
AURREKONTU SARRERAK GUZTIRA	368	383
BALANTZEA		
Emaitzetara egozteko dauden diru-laguntzak	1.560	942

Ondare-kontabilitatean zuzenean erregistratzen dira Ondare garbian diru-laguntzen 708.132 euro (nagusiki, AFaren Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko diru-laguntzak dira, 2016 eta 2017ko ekitaldietakoak) eta horren saldoa minoratzen da Ekonomia eta ondare emaitzaren kontuan 90.018 euro erregistratzearen ondorioz.

A.7 LANGILERIA-GASTUAK

Langile gastuak honako hauek dira, kontzeptuen arabera xehakatuak:

	Euroak milakotan	
	2017	2016
Zuzendaritzako langileen ordainsariak.....	13	13
Funtzionarioen ordainsariak	102	104
Gizarte Segurantza	27	25
Elkarkidetza	3	3
Gizarte gastuak	1	5
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA	146	150

Ordainsariak

2017ko ekitaldiko ordainsariak % 1 egin dute gora aurreko ekitaldiko aldean, legezko aurreikuspenen arabera.

Plantilla eta lanpostuen zerrenda

2017ko ekitaldirako aurrekontuko plantilla lau plazakoa da eta horietatik bi hutsik daude, idazkari kontu-hartzailearena, % 20ko lanaldia duena, eta administrari batena. Egoera hau bat dator egiazko plantillarekin, kudeatzaile batek eta langile batek osatzen baitute.

Lanpostu-zerrendak hiru lanpostu barne hartzen ditu eta ez da ageri idazkari kontu-hartzaile lanpostua.

A.8 ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GASTUAK

Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketagatiko gastuaren xehapena honakoa da:

	Euroak milakotan	
	2017	2016
Kanpoko enpresek egindako lanak	638	646
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	121	81
Energia elektrikoaren hornidura	112	130
Kanpoko enpresek egindako lanak: azterketak eta lan teknikoak.....	96	77
Bestelako hornigaiak	42	42
Kanonak	40	-
Zergak.....	33	34
Komunikazioak.....	27	21
Beste kontzeptu txikiago batzuk.....	69	62
ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GASTUAK GUZTIRA	1.178	1.093

A.9 AURREKONTUAREN ETA ONDARE EMAITZAREN ARTEKO BERDINKATZEA

Kontabilitate publikotik eskuratutako kontularitzako emaitzaren eta aurrekontuko emaitzaren arteko berdinkatzea honako hau da:

	Euroak milakotan
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	11
Inbertsio errealak	1.258
Kapitaleko diru-laguntzek eragindako sarrerak, ondarean emaitzei egotzi gabe	(368)
Ibilgetua amortizatzeko zuzkidura	(852)
Kaudimengabeziatarako zuzkiduraren bariazioa.....	(24)
Ondasun zerrendan jaso ezin diren inbertsioen ondoriozko doiketa.....	(13)
AFAk lagapenak amortizatzearen ondorioz emaitzara eskualdatzea	90
EKITALDIKO EMAITZA	102

**A.10 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA****Kontratazio espedienteak**

Hona hemen aztertutako ondasun eta zerbitzuen kontratazio-espedienteak:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan (BEZa barne)						
	Esleipena			Egikaritzea			Akatsak
	Urtea	Proz.	Zenb.	Metat. 2016	Metat. 2017	Metat. 2017	
OBRAK							
1. Bestialdie UGPGaren instal. eta San Bartoloméko EUAren bideraketa berritzea	2017	PI	657	-	700	700	B, E
2. Maroñoko urtegiko EUAn usain eta zapoak desagerraraztea. 1. fasea	2017	PI	307	-	338	338	C, E
3. Artziniegako EUA birmoldatzea	2016	PGPN	104	87	16	103	C, D, E
ZERBITZUAK							
4. Mantentze-lanak eta matxuren kudeaketa (2 urte eta 1 urteko luz.).....	2015	PI	396	238	296	534	A, D, F
5. Udalerrien esparruko sareen kontr. eta mant. eta oper. zuzendaritza (2 urte).....	2015	PI	144	80	73	153	A, C, D, F, G, H
6. Administrazio orokorrari emandako laguntza eta erabiltzailearentzako arreta (1 urte eta 1 urteko luz.)	2016	PI	78	31	77	108	A, C, D
GUZTIRA			1.686	436	1.500	1.936	

PI: Prozedura irekia.

PGPN: Publikotasunik gabeko prozedura negoziatua.

AKATSAK	Esleipena	
	Esp. kop.	Euroak milakotan (BEZa barne)
A Ez da kontratuaren beharizanari buruzko justifikazio-txostena egin.....	3	618
B Ez da proiektuen ikuskaritza-txostena egin proiektua onartu aurretik	1	657
C Hobekuntzak esleipen-irizpide gisa, zehaztu gabe zein elementutan eta zein baldintzatan aplikatzen diren	4	633
D Gabeziak "prezioa" irizpidea baloratzeko formularen erabileran	4	722
E Adjudikaziodunen lan-programak ez ditu kontratazio-organoak onetsi	3	1.068
F Kontratuaren formalizazioa ez da dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratu	2	540
G Esleipena eta kontratua bi urterako sinatu dira, lizitazioak urtebeteko kontratu bat eta luzapeneko beste bat aurreikusten duenean.....	1	144
H Zerbitzu-prestazioak aurrera jarraitu du iraungi ondoren ere, eta ez da espediente berririk ireki.....	1	144



KANTAUURIKO URKIDETZAREN KONTU OROKORRAREN 14/19 FISKALIZAZIO TXOSTENA, 2017KOA, HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAK (HKEE) EGINDAKOA

1. AURREKARIAK

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) hasiera batean onartu ditu Kantauriko Urkidetzaren kontu orokorraren fiskalizazioaren emaitzak, 2017ko ekitaldiari dagokionez, eta CAKUko lehendakaritzari bidali dizkio, egokitzat jotzen dituen behar beste agiri edo justifikazio aurkez ditzan.

2. XEDEA

Lehendakaritzak aipatutako emaitzak aztertzea eta txosten bat idaztea eskatzen dio kudeatzailetzari. Txosten horretan, egokitzat jotzen dituen justifikazioak eta alegazioak jasoko ditu, agiri honen xedek baitira.

3. TXOSTENAREN ONDORIOEI EGINDAKO ALEGAZIOAK.

Fiskalizazioak lege eta kontabilitate alderdiak barne hartzen ditu; baita "Barneko kontrol-sistemei eta kudeaketa-prozedurei buruzko gogoetak" izeneko epigrafean zehazten diren gastuaren eraginkortasun eta efizientiaren gainean aurkitutako hutsuneak ere.

Epaitegiaren txostenaren egiturari jarraituz, alegazio hauek aurkeztu zaizkio ondorioei.

3.2. II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.

Sareen behe mantentzea kontrolatzeko eta zuzentzeko lanetarako laguntza teknikoko zerbitzua (5. espedientea), 144.306 euroan adjudikatutakoa, bi urtetarako, mugaeguna 2017ko azaroan dagoela, gauzatzen jarraitzen du adjudikaziodunak txosten hau egin den egunean, dagokion kontratazio-espedientea izapidetu gabe (ikusit A.10 eranskina).

Azalpen gisa, adierazi behar dira CAKUko kontratazio-organismoek sektore publikoaren kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea egokitzeko aurkitutako zailtasunak. Lege horren bidez, Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dira.

Kantauriko Urkidetzaren Gobernu Batzordearen 13/2018 erabakiak, irailaren 18koak, Kantauriko Urkidetzako Kontratazio Mahaiaren izendatzea onartzen du. Harrezkero, kontratazioa berriro hasi da, berritzeko zeuden kontratuak lizitatuz.



3.3 II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA.

2017ko ekitaldiko laugarren hiruhileko banaketa eta saneamendu zerbitzuen tasengatiko sarrerak, 202.474 eurokoak, 2018ko ekitaldian erregistratu ziren, beraz, Urkidetzaren ondare garbia, 2017ko abenduaren 31n, zenbateko horretan handitu behar da (ikusit A.5. eranskina).

Urkidetzak hiru hilez behin fakturatzeko banaketa eta estolderiarengatiko sarrerak, eta aurrekontuaren irizpideari bakarrik jarraitzen dio haien kontabilitate-erregistroa egiteko. Hau da, Urkidetzaren aldeko kobratzeko eskubidea, dagokion administrazio-egintza onartutakoan kontabilizatzen da, eta urteko azken hiruhilekoaren kasuan, hurrengo urteko urtarrilera arte ez da egiten. Horrela, ekitaldi bakoitzean, lau hiruhilekoen sarrerak erregistratzen dira beti, urteko emaitza eragin gabe. Hala ere, Urkidetzaren ondare garbia laugarren hiruhilekoaren sarreraren zenbatekoarengatik murriztu da, baina orain arte, garrantzi txikitzat hartu da hori.

Aurrerantzean, kontuan hartuko dugu HKEEk egindako Urkidetzaren 2017ko ekitaldiko kontu orokorraren auditoretza txostenean adierazitako gorabehera hori kontuan hartuko dugu, eta ekitaldi bakoitzaren amaieran, beharrezkoa den ondare-doiketa egingo dugu, sortzapen-irizpideari jarraituz dagozkion sarrerak erregistra ditzagun.

3.4 III.2 ONDASUN ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEA. GASTUA, ADMINISTRAZIO KONTRATAZIO ESPEDIENTERIK GABE.

Obra-espediente bati dagokionez (2. espediente), hiru kontratu txiki kontratatu dira enpresa berarekin, 53.383 euroan, aukeren eta aurreproiektuen azterlana idazteari, txosten teknikoa egiteari eta obra zuzendaritzari buruzkoak. Kontratu horiek prozedura negoziatuaren bidez izapidetu behar ziren, eskaintzak aurkeztuz, konkurrentzia-printzipioa aplikatzeko.

EX027/17 premiazko izapidetze espedienteak, Maroñoko Urtegiko hornidura-sistemaren ETAPetan kiratsak eta zapore txarra kentzeko lehen fasearen obrak gauzatzeko eta proiektuak idazteko helburutzat duenak, urtegiaren eutrofizazioaren ondorioz, edateko uretan aurkitutako arazoei irtenbidea ematen die oso epe laburrean.

Arazoa zortzi hiletan premiaz konpondu behar zenez, ingeniari bati eman behar izan zitzaion zerbitzuen kontratazioa, erantzuna modu koordinatuan eta berehala emateko.

Kontagailuen hornidura eta instalazioa eta erreaktiboen hornidura, 2017ko ekitaldian hurrenez hurren 43.848 eta 29.881 euroren truke espedienterik gabe kontratatutakoak, Urkidetzako gastu errepikariei dagokie, beraz, dagozkion kontratazio-espedienteak egin beharko lirake.



2017. eta 2018. urteetan instalatu ziren **etxeko kontagailuen horniduraren** kontratazioa EX144/16 eta EX121/17 espedienteetan jasotzen da, honela:

- 93/2016 Dekretuak, azaroaren 23koak, Kantauriko Urkidetzako lehendakariarenak, izapidetzea hasten du, administrazio-klausula berezien plegua eta baldintza teknikoaren plegua onartzen ditu, gastua baimendu eta EX144/16 kontratazio-espedientea, publizitaterik gabe, prozedura negoziatu bidez adjudikatzeko prozedura irekitzen du. Horren xedea, etxeko ur-kontagailuak hornitzea da.
- 99/2016 Dekretua, abenduaren 23koa, Kantauriko Urkidetzako lehendakariarena, gastua baimenduz, EX144/16 kontratazio-espedientea adjudikatzen duena. Horren xedea da Conthidra, S.L. eta Elster Medición SAU enpresei etxeko ur-kontagailuak hornitzea, gehienez 34.255,10 euroko zenbatekoarekin eta 8 asteko entrega-epearekin.
- Bi loteen fakturak -1.300 kontagailu guztira- 2017ko urtarril eta otsailean ordaindu ziren: 16.915,80 euro, Conthidra, S.L. enpresari, eta 17.339,30 euro, Elster Medición SAU-ri. Bi zenbatekoek BEZa barne hartzen dute.
- 80/2017 Dekretua, urriaren 9koa, Kantauriko Urkidetzako lehendakariarena, gastua baimenduz, EX121/17 kontratazio-espedientea adjudikatzen duena. Horren xedea da Aranconta, S.L. enpresari etxeko ur-kontagailuak hornitzea, gehienez 13.465,00 euroko zenbatekoarekin eta 8 asteko entrega-epearekin.
- Aranconta SL enpresak 700 kontagailu hornitu zituen 2017ko azaroan, eta 2017ko abenduan 13.465,00 euro ordaindu ziren, BEZik gabe.

EX144/16 eta EX121/17 espedienteen bidez erosi diren etxeko kontagailuen instalazioa bi kontratu txikiren bidez egin zen. Lehenengoa 2016an hasi zen, EX198/16 espedientearekin, eta bigarrena, EX119/17, 2017. eta 2018. urteen artean. Hauek izan ziren bien ezaugarriak:

- 100/2016 Dekretua, abenduaren 23koa, Kantauriko Urkidetzako lehendakariarena, gastua baimenduz, EX198/16 kontratazio-espedientea onartu eta adjudikatzen duena. Bere xedea da CAKUK Aquambiente SAU enpresari kudeatzen dizkion tokiko sareetako etxeko kontagailuak instalatzea, 17.997,50 euroko aurrekontuarekin, eta 6 hileko gauzatzeko epearekin.
- EX144/16 espedienteetan jasotzen diren 868 kontagailuak 2017ko apiril eta azaro bitartean instalatu ziren, 17.992,81 euroren truke.
- 70/2017 Dekretua, irailaren 12koa, Kantauriko Urkidetzako lehendakariarena, gastua baimenduz, EX119/17 kontratazio-espedientea onartu eta adjudikatzen duena. Bere xedea da CAKUK Aquambiente SAU enpresari kudeatzen dizkion tokiko sareetako etxeko kontagailuak instalatzea, 16.300,00 euroko aurrekontuarekin, eta 6 hileko gauzatzeko epearekin.
- EX119/17 espedienteetan jasotzen diren 862 kontagailuak 2017ko apiriletik 2018ko azarora bitartean instalatu ziren, 17.823,65 euroren truke.



Erreaktiboen hornidurari dagokionez, 2017ko kontsumoen kontratazioa, 2016ko abenduaren hasitako kontratazio txikiko hiru espedienteren bidez egin zen, honela:

- 102/2016 Dekretua, abenduaren 23koa, Kantauriko Urkidetzako lehendakariarena, gastua baimenduz, EX203/16 kontratazio-espedientea onartu eta adjudikatzen duena. Bere xedea da tratamendu-instalazioetan prozesuko erreaktiboak edukiontzietan hornitzea Tratawac, S.A. enpresari, unitateko prezioen sistemaren bidez, gehienez 18.000 euroko aurrekontuarekin, eta 6 hileko gauzatzeko epearekin.
- 103/2016 Dekretua, abenduaren 23koa, Kantauriko Urkidetzako lehendakariarena, gastua baimenduz, EX204/16 kontratazio-espedientea onartu eta adjudikatzen duena. Bere xedea da San Bartolomé ETAPen oinarriko koagulatzailea zisternetan hornitzea Acideka, S.A. enpresari, unitateko prezioen sistemaren bidez, gehienez 15.000 euroko aurrekontuarekin, eta hamabi hileko gauzatzeko epearekin.
- 104/2016 Dekretua, abenduaren 23koa, Kantauriko Urkidetzako lehendakariarena, gastua baimenduz, EX205/16 kontratazio-espedientea onartu eta adjudikatzen duena. Bere xedea da San Bartolomé eta Izoriako edateko ura tratatzeko instalazioetan gas kloroa edukiontzietan hornitzea Acideka, S.A. enpresari, unitateko prezioen sistemaren bidez, gehienez 12.000 euroko aurrekontuarekin, eta hamabi hileko gauzatzeko epearekin.
- Hiru kontratuen fakturak 2017. urtean zehar ordaindu ziren, zenbateko hauekin: EX203/16, 17.078,73 euro, EX204/16, 13.744,04 euro, EX205/16, 10.951,50 euro. Horrenbestez, guztira, 41.773,50 euro dira, BEZik gabe¹.

3.5 III.4 TASAK ETA BESTE SARRERA BATZUK.

Urkidetzak ez dizkio helarazi egoera horretan dauden zordunak AFaren Agentzia Exekutiboari, premiamendu-bidea erabiliz zerga-bilketa egiteko 2006. urtean hitzarmen bat sinatu zuenari, eta haien zenbatekoa 2017ko ekitaldiaren amaieran 40.515 euro zen.

Aurrerantzean HKEEk Urkidetzaren 2017ko ekitaldiko kontu orokorraren auditoretza-txostenean egindako gomendioa kontuan hartuko dugu. Horrela, preskribatuta ez dauden aurreko ekitaldietako kobratzeko dauden diru-sarrerak helaraziko dizkiogu AFaren Agentzia Exekutiboari.

¹ Alegazioak erreferentzia-gai dituen espediente guztiak dira kontratu txikiak eta kontratazioko prozedura honek ez du kontratazio-espediente baten izaera 2017an indarrean dagoen legearen arabera. HKEEren iritzia da espediente bat egin dezazuela lehia printzipioa aplikatu ahal izateko.



ABREVIATURAS

BOE	Boletín Oficial del Estado.
BOTHA	Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.
Consortio	Consortio de Aguas Kantauriko Urkidetza.
DFA	Diputación Foral de Álava.
DOUE	Diario Oficial de la Unión Europea.
EBAB	Estación de Bombeo de Agua Bruta.
ETAP	Estación de Tratamiento de Agua Potable.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
TRLCSP	Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.





I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (TVCP), de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero y en el Programa de Trabajo para 2018, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Consorcio de Aguas Kantauriko Urkidetza correspondiente al ejercicio 2017.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: en las áreas presupuestaria, personal, contratación de obras, suministros y servicios y normativa sobre ingresos de derecho público.
- Contables: se analiza si las cuentas del Consorcio, se elaboran de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

Los Ayuntamientos de Amurrio, Artziniega, Ayala, Okondo, Llodio y la Cuadrilla de Ayala, junto con la Diputación Foral de Álava, acordaron aprobar en 1998 y 1999 la constitución de un Consorcio de Aguas denominado “Kantauriko Urkidetza”, publicándose los Estatutos por los que había de regirse en el BOTHA de 22 de junio de 1998.

El 24 de febrero de 1999 se publicó en el BOTHA la aprobación inicial de la propuesta de adhesión de la DFA al Consorcio de Aguas “Kantauriko Urkidetza”, los Estatutos del Consorcio y la relación valorada de bienes y derechos que la DFA transfería al Consorcio y en el BOTHA 30 de abril de 1999 se publicó la aprobación definitiva de la adhesión de la DFA al Consorcio de Aguas “Kantauriko Urkidetza”.

